



# ZALDIBAR ARGITZEKO HERRI AKUSAZIOA AURRERA

## #lagunduargitzen

### Herri akusazioa, herritarron interesen defentsan

Gaurkoan jakinarazi nahi dugu, Zaldibarren hondamendia argitu eta erantzukizunak argitzeko Durangoko Lehen Instrukzio epaitegian irekita dauden bi auzibideetan Herri Akusazio gisa aurkeztu dela EH-ko eskubide sozialen Karta eta Zaldibar Argitu plataforma.

Ingurugiroaren aurkako delituagatik irekitako auzian onartuak izan gara, zuzenean jaso dugun autoaren bidez. Autoan agertzen den bezala, gaur gaurkoz, VERTER RECYCLING 2002SL enpresa da ikertua izango den pertsona juridiko bakarra, baina bestelako erantzukizunak identifikatzen badira, etorkizunean modulatu ahalko da.

Era berean, jakin dugu auzia berriro ere bi kausatan banatu dela. Hori dela eta, bigarren kausan ere aurkezteko tramiteak burutu ditugu eta aurki onarpen autoa jasotzea espero dugu. Bigarren kausa honetan langileen aurkako delituak izango dira ikertua.

EH-ko eskubide sozialen Kartak eta Zaldibar Argitu plataformak herri interesen aldeko herri akusazioa eramango du aurrera, eskubide osoz modu aktiboan parte hartuz. Horretarako lan talde juridikoa osatu dugu eta lanean dago erantzukizunak, egia eta justizia argitzen lagunduko digun Herri akusazioa artikulatzen. Momentu egokia denean, argibide gehiago emango ditugu.

### Diru bilketa herrikoia

Zaldibarko zabortegia amildu zela urtebete baino gehiago igaro da. Urte bete baino gehiago, zaborrezko munstroak Joaquin eta Alberto irentsi zituenetik. Iluntasunean amildu zen zabortegia, eta iluntasunak dirau gaur egun bertan. Ez da informazio gardenik eskaini, ez dira erantzukizunak argitu eta ez da egia zein justizia egiteko pausurik eman agintari publikoen aldetik. Iluntasunari argia emateko asmoz aurkeztu gara Herri Akusazio gisa Zaldibar Argitu plataforma eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta.

Herri Akusazioak, ordea, lan eskergea zein diru inbertsio handia suposatuko du eta beharrezkoa izango dugu herritarron laguntza ekonomikoa. Horretarako, itsulapikoa.eus plataforman diru bilketa herrikoia antolatu dugu, herritarron diru ekarpena hainbat opariren bidez eskertuz. Gure ahalegina izango da prozesu honetan zehar egia eta justizia argitzea, erantzukizunak argitzea. Zentzu horretan, herritarroi bidelagun izatera gonbidatzen

zaituztegu, bakoitzak ahal duen ekarpena eginez: diru ekarpena egitea, diru bilketa zabaltzen laguntzea...

Informazio gehiago **itsulapikoa.eus** plataforman:

<https://www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/lagundu-argitzen>

**Diru ekarpena martxoaren 4ra arte egin daiteke; beraz, azken 20 egunak ditugu.**

### Erantzukizunak argitu – politika publikoaren lehentasunak aldatu

Zaldibarko hondamendian ukaezina da Verter Recycling enpresak duen erantzukizun zuzena. Erantzukizunak, ordea, ezin dira eremu pribatura mugatu, eremu instituzionalak gertatzen ari zenaren gaineko erantzukizun politikoa baitu.

Zabor kudeaketa pribatizatu eta kontrol publikorik ez edukitzeak, egungo zabor eredia negozio bilakatu du eta patronalak horretan ere aurkitu du mozkin langile klasearen zein naturaren bizkar.

Egoera tragiko horren aurrean, patronalak sustatzen duen eredia ez salatzeak, Administrazio publikoa bera konplize bilakatu du, egoera aldatzeko beharrezkoak diren zaintza, kontrol zein babes neurriak ez baititu hartzen, langileon bizitza zein osasuna bermatzeko edota zabor eredu iraunkor baterako trantsizioa egiteko.

Pasa den urteko urtarrilaren 30ean bizitza, lan eta pentsio duinak aldarrikatuz greba orokorra egin genuen, milaka herritar – herri honetako gehiengo soziala - mobilizatuz. Urte bete honetan zehar, osasun krisiarekin, aurretik zetorren krisi estrukturala azeleratu da, eremu ezberdinetako krisiak bisibilizatuz (zaintza, hezkuntza eredia, lan harremanak, osasungintza...).

2020ko otsailaren 6ko gertakariak, eredu ekonomiko kapitalista ekozida hau iraunkorra ez dela, heriotza-sufirimendua besterik ez duela ekartzen eta pertsonen bizitzaren aurkakoa dela agerian utzi du. Zaldibarko zaborraren atzean dagoen zabor kudeaketari kiratsa dario. Eremu honetan ere, garaia da eredu berri bateranzko urratsak emateko, politikaren lehentasunak aldatzeko.

**2021.eko otsailak 18, Durangon.**





# ACUSACIÓN POPULAR PARA ESCLARECER ZALDIBAR

## #lagunduargitzen

### Acusación popular en defensa de los intereses de la ciudadanía

Gaurkoan jakinarazi nahi dugu, Zaldibarren hondamendia. Hoy queremos hacer público que en los dos litigios abiertos en el Juzgado de Instrucción número 1 de Durango para esclarecer la catástrofe de Zaldibar y depurar responsabilidades, se ha presentado como Acusación Popular la Carta de derechos sociales de EH y la plataforma Zaldibar Argitu.

Hemos sido admitidas en la causa abierta por delito contra el medio ambiente, a través de un auto recibido. Tal y como consta en el auto, a día de hoy, la única persona jurídica investigada en esta causa es la empresa VERTER RECYCLING 2002SL, pero creemos que si se identifican otras responsabilidades, esto podría modificarse en un futuro.

Como hemos podido saber, el caso se ha dividido otra vez en dos causas. Por ello, hemos realizado los trámites pertinentes para presentarnos también en la segunda causa y esperamos recibir en breve el auto de admisión. En esta segunda causa se investigarán delitos contra los derechos de los trabajadores.

La Carta de derechos sociales de EH y la plataforma Zaldibar Argitu articularemos una acusación popular en defensa de los intereses populares, participando activamente con pleno derecho. Para ello hemos formado un grupo jurídico de trabajo que ya está trabajando en la articulación de una acusación popular que ayude a esclarecer las responsabilidades, la verdad y la justicia. Cuando sea el momento oportuno, podremos compartir con la sociedad más información.

### Recaudación popular

Ha pasado más de un año del derrumbe del vertedero de Zaldibar. Más de un año, desde que el monstruo de la basura devoró a Joaquín y Alberto. El vertedero se derrumbó en la oscuridad y la oscuridad persiste hoy en día. No se ha ofrecido información transparente, no se han depurado responsabilidades y no se han dado pasos para hacer verdadera justicia por parte de las autoridades públicas. Con el fin de dar luz a la oscuridad nos hemos presentado como Acusación Popular la plataforma, como ya hemos anunciado.

Sin embargo, la Acusación Popular va a suponer un gran trabajo y una importante inversión económica. Para hacerle frente a todo esto, necesitaremos la ayuda económica de la ciudadanía. Por ello, hemos organizado una colecta popular en la plataforma Itsulapiko, agradeciendo la aportación económica de la ciudadanía mediante la compra de diversos

regalos. Nuestro esfuerzo será esclarecer la verdad y la justicia a lo largo de este proceso y depurar responsabilidades. En este sentido, invitamos a la ciudadanía a que nos acompañe, aportando cada uno lo que pueda: aportar dinero, contribuir a ampliar la recaudación...

Se dispone de más información en:

<https://www.itsulapikoa.eus/es/proyectos/ayuddu-argitu>

**La aportación económica se puede realizar hasta el 4 de marzo, por lo que disponemos de los últimos 20 días.**

### Depurar responsabilidades – Cambiar las prioridades de las políticas públicas

En la catástrofe de Zaldibar es innegable la responsabilidad directa que tiene la empresa Verter Recycling. Sin embargo, las responsabilidades no pueden limitarse al ámbito privado, ya que el ámbito institucional tiene una responsabilidad política sobre lo que estaba ocurriendo.

La privatización de la gestión de la basura y la falta o insuficiencia en su control público han convertido el actual modelo de gestión de residuos en un negocio en el que la patronal ha encontrado su beneficio a costa tanto de la salud y la vida de los trabajadores y de la propia naturaleza.

Ante esta trágica situación, el no denunciar el modelo que defiende la patronal, el no adoptar las medidas de vigilancia, control y protección necesarias para cambiar la situación y para garantizar la vida y la salud de los trabajadores y para hacer la transición hacia un modelo de gestión de residuos sostenible, ha convertido a la propia Administración pública en cómplice de este despropósito.

El 30 de enero del año pasado hicimos una huelga general reivindicando vidas, trabajo y pensiones dignas, movilizándolo a miles de personas -la mayoría social de este país-. A lo largo de ese año, con la crisis sanitaria, se ha acelerado la crisis estructural previa, visibilizando las crisis de diferentes ámbitos (cuidados, modelo educativo, relaciones laborales, sanidad, vivienda...).

El incidente del 6 de febrero de 2020 ha puesto de manifiesto que este modelo económico capitalista ecocida no es sostenible, sólo aporta sufrimiento, muerte y desigualdad y confronta con la vida de las personas. El modelo de gestión de residuos de Zaldibar apesta. Por todo ello, reivindicamos un cambio radical de las prioridades de las políticas públicas, también en el ámbito de la gestión de residuos.

**18 de febrero de 2021, Durango.**

